

Begira



ULMA

Martxo 2003

2. zkia



ULMA Taldea munduan



Alberto Inurrategi:
8000 metro, ilusioz beteta

Obra Zibila:
hazten ari den
negozia



azpimarragarriena... aurkibidea

6



12



3 Hizpidea...

Krisialdian ere haztea

4 Albisteak eta gaur egungo gaiak:

Zilarrezko Q saria ULMA Packaging-eko langileentzat.

ULMA Handling Systems negozioak Biltegitratze Automatikorako Proiektu berriak bereganatu ditu.

ULMAko boluntarioak Galizian.

ULMA Carretillas Elevadoras ordezeko piezen negozioa sustatzen.

10 Solasean:

Alberto Iñurrategi.

12 ULMA Taldea munduan:

AEBetako gure filialak.

14 Erreportaia:

Leporaino obra zibilean...

16 Hobekuntza; hobetzeko parte hartzea

18 Beste begirada:

Julio Saiz.

20 Albiste osasungarriak

Gripea iritsi da!

21 40 urte elkarrekin

22 Zer deritzozu?

24 Agenda eta iradokizunak

18



21

BEGIRA

KOLABORATZAILEEN TALDEA;
Nora Altube, Roberto Mendi, Paloma del Valle, Nerea Zallo,
Peio Bengoetxea, Rafa Rodriguez, J.M. Aguriondo

2003ko martxoa
Edizioa: ULMA Taldea
Diseinua: AZK Taldea
Inprimategia: ELKAR S. Coop.

Grupo ULMA S. Coop.
Otdai pas., 3 - 13 posta kutxatila. 20560 OÑATI
Tel.: 943 034900 Faxa: 943 780917
e-mail: begira@ulma.es



Krisialdian ere haztea

Amaitu berri den 2002. urtean, halako motelaldi bat eta ezegonkortasun orokor bat nagusitu dira eta, oro har, espainiar gizarte osoan ez du BPGan % 2tik gorako hazkunderik ekarriko; hau EBkoaren bikoitza izango da gainera. Ekipo-ondasunen sektoreak %3,8 egin du behera, eta eraikuntza da Espainian ekonomia bultzatzen jarraitzen duen sektorea, % 4,4 inguruko hazkundearekin. Espainiako esportazioak % 4 jaitsi dira, nazioarteko merkataritzaren motel-tzearekin batera.

Hori guztia kontuan hartuta eta egoera horrelakoa izan arren, gustura egon behar dugu, ULMA Taldearen emaitzak oro har nahiko positiboak izan baitira. ULMA Taldearen barnean salmenten urteko hazkundera % 11,8koa izan da (350 milioi euro inguru), eta horrek argi eta garbi adierazten du taldearen martxa ona; dibertsifikazio-estrategia eta erabaterako kalitatearen aldeko apustua dira taldearen aktibo nagusiak.

2002. urteko egoera oso ona ez izan arren, ULMA Taldearen salmentak % 11,8 hazi ziren eta plantilan guztira beste 162 pertsona sartu ziren. Emaitzak 17,8 milioi eurokoak izan ziren

Txomin García

Ulma Taldeko
Zuzendari Nagusia



ULMA Taldean enpleguak gorantz egin du, aurreko ekitaldian baino motelago bada ere. 2002ko ekitaldian taldean 162 pertsona sartu dira eta, beraz, langileen multzo osoa (filialetako langileak barne) 2.578 lanpostutan kokatu da; horietatik 426 (kopuru osoaren % 16,5) atzerrian daude.

Esparru sozialean, enplegu kooperatiboa sustatzen jarraitu da, 168 bazkide berri sartu baitira; horrela, kooperatibetako enplegu guztien artean sozioak % 73,5 dira.

Interesen ondorengo emaitza garbiak (% 2,1 salmenten gain) 17,8 milioi euroren inguruan kokatuko dira.

2003ko ekitaldia oro har 2002ko ekitaldiaren antzekoa izango dela pentsatzen da, eta badirudi bizkortzen ari dela adierazten duen sintomarik ez dela nabari eremu ekonomikoan; gainera, ziurrenik Iraken aurka egingo den gerrak sortutako larrialdiak okertu egingo du egoera.

Taldearen barnean, 2003. urterako aurreikuspenek salmentak 355 milioi euro ingurukoak izango direla diote, eta nazioarteko salmentek gora egingo dutela nabarmen; 122 milioi euro ingurukoak izango direla pentsatzen da (% 34 guztiaren gain). Halaber, errentagarritasunari eutsi egingo zaiola ematen du. Enpleguari dagokionez, sozioak sartzen joango dira, 2003. urtearen

amaieran kooperatibetako enplegu guztien % 80ra iristeko.

2003. urteak Erabateko Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren garapenean aurrerapen garrantzitsuak ekarriko dizkie ULMA Taldeko negozio guztiei, kudeaketaren erreferentziatzat EFQM eredua sendotzen doazen heinean.

Bestalde, egoera koiunturaletatik harantzago joz, globalizazioak lehiakideen artean homogeneizatzea jo du; gure ahaleginak benetan gure esku dagoen horretara zuzendu behar du: gure bezeroen ahetasuna hobetzera eta barne-eraginkortasuna sustatzera.

Azken buruan, aukeraketa naturala egingo balitz bezala, faktore horiek erabakiko dute nork jarraituko duen negozioetan eta nor aterako den krisialditik, hobeto kokatuta gainera, edota nork galduko dituen leku lehiakorrek edo nor desagertuko den. Krisi orokorreko garaian, orain, adibidez, arrakastaren erreferenteak ez dira jada beste urteetako lorpenak, gure lehiakideen ondoan dugun kokaleku lehiakorra baizik. Eta hori gure gain dago, gauzak ondo egiten asmatu behar dugu. Arrakastaren argiari ez diogu itzaltzen utzi behar: bezeroaren ahetasuna eta eraginkortasuna sustatzea gure barne-prozesuetan... Guztion lankidetzarekin eta parte hartzearekin, ezarritako helburu handi horiek lortuko ditugu eta indartuta aterako gara.



Zilarrezko Q saria ULMA Packaging-eko langileentzat

■ Otsailaren 19an, ULMAko instalazioetan Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburua, Josu Jon Imaz, eta Euskalit-eko Presidentea, Jesus Murga, zirela, ULMA Packaging-eko langileei 2002. urteko Enpresaren Bikaintasunagatik zilarrezko Q saria eman zitzaion. Sari horren bidez, kudeaketa hobetzeko erreferentziatzko esparrutzat EFQM eredia erabil-tzen duten eta Erabateko

Kalitatea lortzeko bidean konpromisoa hartu duten erakundeak nabarmendu dira.

ULMA Packaging-ek 2002. urtean 64 milioi euro inguruko negozio-bolumena lortu zuen, 500 profesional inguruko plantilarekin; bertan, produkzioaren % 65 nazioarteko merkatuetara zuzenduta dago, mundu osoan banatuta dauden bere filialen eta banatzaileen sarearen bidez.



Irudian, Tinamenor taldearen arrain-haztegia Kantabrian.

ULMA Agrícola arrain-haztegi baten instalazioa egin du Tinamenor taldearentzat Kantabrian

Akuikulturako Espainiako enpresatalde garrantzitsuenetarikoak, TINAMENOR-ek, Pesuésen (Kantabria) inauguratu berri duen arrain-haztegian urrururu, erreboilo eta lupina txikiak haziko ditu.

ULMA Agrícola egindako instalazioak kapera ugari bi nabe izango ditu, 6,4 x 45 m luze-zabalekoak eta 5,5 m altukoak, sabaian plaka zurrune-ko estaldura dutenak plaktona biltzeko; eta beste 6 nabe 9 x 42,5 m-koak, plastiko eta pantaila termikoz estaliak. Berorietan, arrain txikien produkzioarako ur tankeak kokatuko dira, eta instalazioaren azalera osoa 2.295 m²-koa izango da.

Finantza Zuzendari berria ULMA Taldeak

Duela gutxi, Jokin Ugarte ULMA Taldearen Finantza Zuzendari berri izendatu dute. Jose Ramon Anduagaren lekua hartuko du honek, hau ULMA Construcción Negozioaren Finantza Zuzendaritzan sartuko baita. Jokin EIKA Kooperatibatik dator, MCCko Osagaien sailkoa.



Izen-abizenak:

Jokin Ugarte Azpiri.

Adina:

42 urte.

Jaioterria:

Bergara (Gipuzkoa).

Egoera zibila:

Ezkondua.

Ikasketak:

Enpresa Ikasketetan Lizentziatua.

Zaletasunak:

Mendia, irakurketa eta zinema.



Schauman Wood enpresa finlandiarrak ULMA Construcción bisitatu du

■ Iazko urte amaiera aldera, Schauman Wood enpresa finlandiarrak ULMA Construcción bisitatu zuen. Enkofratze modularretarako tablero fenolikoak egiten dituen etxe honen ordezkari modura, Lahtiko lantegiko presidenteordea eta produkzioko zuzendaria, Mikkola Olavi, etorri zen. Taldea hango hainbat fabrikatako zuzendaritzako ordezkari zenbaitek, garapen arloko buruek, kalitate-ikuskariak eta langileen ordezkariak eta elkarte sindikaletakoek osatzen zuten, eta hauekin etorri ziren Olli Ahopelto eta Lola Unzueta ere, Espainiako Schauman Ibérica-koak azken biak.

Schauman Wood-ek tablero kontraxapatuko 13 lantegi ditu, 910.00 m³-ko produkzio gaitasuna dutenak, eta horrek urteko produkzioa 23.000 kamioitakoa dela adierazten du. ULMAk 2001. urtean egindako kontsumoa 5.190 m³-koa izan zen, aurreko urteko kontsumoaren bikoitza ia. Bisita horren arrazoia enpresak kooperatiben mugimendua ezagutzeko erakutsi zuen interesa izan zen; eta, horrez gain, bi enpresen artean egiten diren esperientzien eta negozioen trukeen barnean, ULMAk iazko urtean etxe horren lantegiak ikusteko egindako bisitaren ordaina ere izan zen.



ULMA Packaging-ek Topaketa Komertziala ospatu du Espainiako Salmenten Sarearekin. Otsailaren 4an eta 5ean, urtero Oñatiko ULMA Packaging-en sare komertziala biltzen duen Topaketa Komertziala ospatu zen. 2002ko ekitaldiaren errepasoa egiten duten bilera horiek 2003. urterako perspektiben lehen aurrerapena ere egiten dute. Irudian, partaideen talde bat Topaketa Komertzialean.

ULMA Handling Systems negozioak Biltegitratze Automatikorako **Proiektu berriak** bereganatu ditu

■ ULMA Handling Systems negozioak aurtengo urtean zenbait enpresa garrantzitsurentzat, Imaginarium, Rendelsur edota Altadis-entzat, adibidez, biltegi automatiko berriak egingo ditu.

Umeentzako jostailuen dendan sarearen kasuan, Imaginarium-en kasuan, etxe honek Zaragozan abian jarri duen plataforma berriarentzat instalazio berria egingo du ULMAk, jostailuen biltegi nagusia bertan baitu. Biltegiak ohiko apalak izango ditu eta ULMAk bi sistema berdinean ezarriko ditu, orga transferitzaile automatikoarekin.

Coca-Colaren banatzaile den Rendelsur-en kasuan, instalazioa konpainia honek Sevillan duen plantan egingo da. Kamioietarako kargak prestatzeko sistema bat ezarriko du bertan. Bi fasetan emango da eta lehenengoa maizterako eta bigarrena urrirako amaitzea aurreikusten da. Rendelsur-ek beste marka ezagun batzuekin ere lan egiten du, Aquarius, Nestea, Fruitopia, Ginger Ale eta beste hainbatekin. Berrikuntza gisa, Coca-Colak merkaturatu berri duen produktu berri bat, Nordic Mist, ere honek banatuko duela esan behar da.

ULMA Handling Systems-ek ALTADIS tabako-enpresan abian jarriko duen instalazioa Agoncillon (Errioxa) egingo da eta lau transjagailuz hornitutako 17 korridore izango ditu; 2,5 m altu arteko 3.000 paleta baino gehiago sartuko dira bertan. ALTADIS etxeak oso pakete tabako ezagunak banatzen ditu: Ducados, Nobel, Fortuna, Habanos etab.

ULMAko boluntarioak Galizian

ULMA Taldeko langileek garbiketa lanetan parte hartu dute galipota kentzen Costa da Morten



■ Mondragon Unibertsitateak Galiziako kostaldea garbitzeko antolatutako bidaiaren barnean, gure langile batzuek 200 pertsona baino gehiagoko espedizioan parte hartu zuten; ULMA Taldeak eta eskualdeko beste kooperatiba batzuek finantzaturako espedizio hori Lirara joan zen (Costa da Morte). Ikasleekin batera, inguruko zenbait kooperatibatako langileak ere joan ziren. ULMAko bost langilek (Iban Mugarza, Iker Lopez, Javier Osa, Saioa Biain eta Manu Gonzalez),

parte hartu zuten garbiketetan. la 12 orduko bidaia egin ondoren, espedizioa Lirako kiroldegira iritsi zen eta bertan beste boluntario batzuekin egin zuten gaua. Gure lagunek zenbait lanen zailtasuna azaldu ziguten, lanerako jantzia janzteak, adibidez. "Segurtasun jantziak janzteko ere geure denbora behar izan genuen. Bakoitzaren jantzien gainetik, hori koloreko plastikozko galtza batzuk eta txaketa bat jantzi behar ziren eta gainetik, poliuretanozko buzua. Botak

eta eskularruak jantzi behar ziren gero eta buzua ukitzen zuten ertz guztiak ondo itxi behar ziren zelo paperaz. Eta, amaitzeko, segurtasun betaurrekoak eta mozorroa jantzi behar zenituen".

Garbiketa lanak hilaren 21ean egin ziren, Praia das Javotas-en. Handik En Por Alto izeneko hondartza harritsu batera (coido) joan ziren eta, gero, berriz, Ximprón-era; han jardun ziren lanean hilaren 22an. Espedizioa 23an etorri zen, bi lanegun gogor egin ondoren.

"Informazioa Portugaldik lortzen dute"



Iban Mugarza
ULMA Packaging

"Bidaiaz dudak inpresioa nahiko ona da, egoera zuzenean ezagutu ahal izan baitugu, eta ez komunikabideetatik, guziok dakigunez, hauek gertatutakoaren oso ikuspegi nahasia ematen baitute eta nahasmen hori argi ageri baita garbiketa lanen antolamenduan ere. Han egin genuen lehenengo egunean material mordo iritsi zitzaion, baina horrenbeste jende etortzeko zela ez zekitenez, ez zeuden prestatuta. Hori goizean nabarmendu zen batik bat, horrenbeste jende mugitzea kostatu egin baitzitzaion; horregatik, hondartza garbitzen geure kabuz hasi ginen, inoren koordinaziorik gabe. Bilketa errazteko materiala falta zen, orgak, otarrak eta palak edota beste bitarteko mekaniko handiagoren bat; baina babesteko jantzien faltarik ez nuen sumatu. Igandean gauzak dezente hobetu ziren eta, hasierako unetik, jendeak ondo zaindu gintuen, ura emanez; beraz, probetxu handiagoa emango genion egunari. Bertako jendearekin hitz egin genuenean, Xuntak zentsuratu egiten zuela eta informaziorik ez zietela ematen esanez kexatu zitzaizkigun. Informazioa Portugaldik lortzen zutela esan ziguten."

"Hondamendia gertutik ikusi nahi nuen"



Javier Osa
ULMA Construcción

"Telebistaz ikusitako irudiek zor eta lor utzi ninduten eta gertutik ezagutzeko aukera izan nuenean, bi aldiz pentsatu gabe hara abiatu nintzen. Bi egunez lanean jardun genuen han, eta lehenengo egunean antolamenduak inpresio onik egin ez bazigun ere, bigarren egunerako asko hobetu zen; uste dut pozik gelditu ginela egindako lanarekin. Bestalde, oso eguraldi txarra egin zigunez, ezin izan genuen beste herri batzuetara joan, eta ez genuen hango jendearekin hitz egiteko aukera handirik izan eta, gainera, informazio askorik ez ziguten eman; horregatik, etxera apur bat etsita iritsi nintzen, inguruko herrietan berriz zer-nolako egoera zuten jakiterik izan ez genuelako".

ULMA Carretillas Elevadoras ordezeko piezen negozioa sustatzen

■ Laster, ULMA Carretillas Elevadoras igotzeko eskorgetarako ordezeko piezak merkaturatzen hasiko da. Marka ezaguneko eskorgak dira: Mitsubishi, Nichiyu, Prat, Toyota, Nissan, Linde, Still, BT, Jungheinrich etab.

Orain arte, linea honen jarduera soilik ULMAk banatzen zituen igotzeko eskorgen ordezeko piezak merkaturatzera zuzentzen zen (Mitsubishi, Nichiyu eta Prat). Baina gogoeta bat egin ondoren, ULMA Carretillas Elevadoras-ek, negozio-linea honek etorkizunean kontuan hartu behar dituen jarraibide estrategiko berriak landu ondoren, aipatutako marketako



eskorgen ordezeko piezez gain, igotzeko eskorgetan oso ezagunak diren beste hainbat etxerentzat ere ordezeko piezak eta osagarriak egitea erabaki du. Hori guztia egin ahal izateko, ULMA Carretillas Elevadoras-ek enpresa berri bat sortu du, SR 2002 S.L. deritzona, eta honen bidez ahalmen handiko negozio-linea berri bat garatu nahi du. Gaur egun, Komunikazio Planaren hedapen fasean daude.



ULMA Handling Systems lider lekuetan. Karga arinetako 117 biltegi operatiboetatik 49 dituela kontuan hartuta, ULMA parkearen % 50era iristear egon da 2002. urtean, eskarien % 60 bereganatu duen urte horretan. Zenbait proiektutan makinaren laneko altuera nabarmendu da. Horixe da Bilboko Vinco burdindegiko-biltegiaren kasua, 17,6 metro altukoa, edota Arrasateko JMarentzat egindako proiektua, bertan transjasogailuak 18 metroko altueran ere lan egin behar izaten baitu. 2002. urtean, ULMA, 89 proiektorekin eta 199 makinarekin, sektorean lehen postuetan kokatu zen, Siemens Dematic-en aurretik, 83 biltegi eta 200 transjasogailurekin. 2003. urtean ere ULMA sektorean lider izatea espero da, gutxienez paletetikiko 12 biltegi automatiko, 24 transjasogailu eta karga arineko beste bost, bost makinarekin, izanik (*Iturria: Manutención y Almacenaje aldizkaria*).



ULMA Forjak informazioaren kudeaketa integratuko sistema berri bat (ERP) jami du abian

ULMA Forjak martxoan informazioaren kudeaketa-sistema berri bat merkaturatu du, finantzen, produktzioaren, plangintzaren, kalitatearen, merkataritza sarearen, biltegi-kudeaketaren, aurrekontuen, eskaeren, albaran eta fakturen, igorpenen eta abarren moduluak bilduko dituena.

Proiektua ULMA Forjak Informazioaren Teknologietako joera berrietara moldatzeko duen beharraren ondorio izan da, azken urteetan enpresen arteko komunikazio-sistemak izugarriko aldaketa izan baitute: Internet, posta elektronikoa...

Bezeroaren zerbitzura dauden web orrialdeei informazioa emateaz gain (www.ulmaforging.com), Microsoft eta SQL Server 2000 Datu Baseko tresnez osatuta dago sistema hau. Lehenengo, Oñatin jarriko da martxan eta, ondoren, ULMA Forjak Venezuelan duen filialean.

ULMA Forjak estrategikotzat jo duen proiektu honen helburua bezeroei eskaintzen zaien arreta hobetzea eta barne-baliabideak hobeto ustiatzea da, produktio eta kudeaketa lanak hobeto kontrolatuz erabakiak hartu ahal izateko. Instalatu beharreko ERP hori Navision Axapta da eta parte hartuko du Watermark enpresak (lehen Vanenburg).



Fortune aldizkariak dioenez, **MCC**, lanerako Europako **10 konpainia onenen artean** dago

■ Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC) lanerako hamar enpresa onenen artean dago, Fortune aldizkari amerikar entzute-tsuan azaldu denez. MCCz gain, zerrenda horretan daude Ferrari autoa egiten duen enpresak, Intel mikroprozesadoreen Irlandako filiala, munduko lehen zementu fabrika, Lafarge, munduko elikadura konpainia handiena, Nestlé, Bacardi Martini edarien enpresa britainiarra,

Schering enpresa farmazeutiko alemaniarra, Grundfos ur ponpen lan-tegi daniarra, Italiako Unes supermerkatu katea eta jantzien banatzailerle suediar ezaguna, H&M.

Aldizkariak azpimarratutako alderdi positiboan, besteak beste, antolamenduaren izaera demokratikoa, elkartasuna edo berdintasun handiagoa izan dira. Irudian, artikulu horretan agertu zen ULMA Packaging lan-tegia.

BA AL ZENEKIEN...

- ULMA Hormigón Polímero negozioak aurrefabrikatutako materialez hornitu du Jerezko Abiadura Zirkuitua. Burdinurtuko sareen bi kanal mota desberdinetako 1.700 metro lineal ezarri dira Zirkuituko boxetan eta Paddock-ean.
- 2002. urteko Borondatezko Ekarpeneren ondoren, 2003. urteko urtarrilean ULMA Taldean 349ko kopurura iritsi dira, eta 5 milioi euroko zenbatekoa adierazten du horrek.



ULMA Forjako ospakizunak. ULMA Forjako langileek abenduan kooperatibaren osaketaren 40. urteurrena ospatu zuten. Eguna hasteko, Mirandaolako Burdinola ikusi zuten eta, ondoren, Oñatiko Etxe-Aundi jatetxera jo zuten. Postre garaian, Taldeko Presidentek, Jose Luis Madinagoitiak, eta ULMA Forjako Gerenteak, Fernando Recalde, bazkide fundatzaileei oroiri txiki bana eman zieten.

2002. urteko jardueretan motelaldi bat nabarmendu arren, ekitaldia positiboa izan da MCCrentzat

■ Mondragon Korporazio Kooperatiboan, 2002ko ekitaldiko itxieran aurreratu diren datuek MCC ekitaldi zail eta gogor baten aurrean kokatu dute, baina hori Korporazioko Industria eta Banaketa Sailetan izan den salmenten gorakada nabarmenekin parekatu ahal izan da.

MCCko Industria Saileko salmentak 3.428 milioi eurokoak izan dira eta, beraz, 2001. urteko datuekin konparatuta, % 6,7 areagotu dira; nazioartean, aurrerapen dinamikoagoa izan du, % 10,3koa. Talde Industrialean, 2002ko ekitaldiko emaitzen aurrera-

pena 125,6 milioi euro ingurukoa izan da, aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa, nahiz eta kontuan hartu behar den MCCren barnean AMPO kooperatiba eta ULMA Taldea sartu direla.



Banaketa Taldean, otsailetik abendura bitarteko salmenta bateratuak 4.725 milioi eurokoak izan dira, eta 2001. urteko garai horretako datuekin konparatuta, % 11,8ko hazkundea adierazten du horrek. Urte amaieran, lan-

postuak 32.848 ziren, eta urtebetean 2.411 sortu ziren. Abendu arteko emaitzak aurreikusitakoaren eta garai horretan 2001. urtean lortutakoaren gainetik zeuden apur bat.

Finantza Taldeak nahiko inguru zaila izan du aurrez aurre, burtsako merkatuek eta interes-tasek beharrekada handiak jasan baitituzte eta horrek eragina izan baitu negozioaren bitartekaritza marjinan. Soberakin Garbi globalak 64,5 milioi eurokoak izan dira, eta beherantz egin dute Euskadiko Kutxan eta Lagun Aron.

ULMA Hormigón Polímerok Larrialdietarako Prestakuntza Ikastaroa antolatu du Lehenengo Esku Hartzeetarako Taldeentzat



ULMA Hormigón Polímerok urtarrean Lehenengo Esku Hartzeetarako Taldeentzat Prestakuntza Ikastaroa antolatu zuen; bertan, egun erdiko bi saiotan, plantan erantzukizun eta arrisku handiena adierazten duten inguruen ezagutzan trebatu ziren eta larrialdietako sarbideak, eskaileak, irteerak eta telefonoak, babesgarriak etab. non zeuden aztertu zituzten.

Negozioak abiarazi duen Larrialdietarako Plan Orokorren barnean, ikastaroaren helburu nagusia suren bat, istripuren bat, isurketaren bat edo horrelako zerbait gertatuz gero, plantan larrialdietan azkar eta eraginkor-

tasunez esku hartzeko aukera ematea izan da.

Negozioan lan egiten duten pertsona guztien segurtasuna zaindu beharraz jabetuta eta konpromisoa hartuta, ULMA Hormigón Polímerok Larrialdietarako Plana diseinatu du; eta hainbat fasetan ezarriko da eta bertako jarduerekin lotutako pertsona guztiak beronen berri emango zaie, larrialdietan zer egin behar duten jakin dezaten eta horrelako egoerentzako prest egon daitezten.

ULMA Carretillas Elevadoras eta ULMA Handling Systems negozioek ere beren Larrialdietarako Plana egin dute espezializatutako enpresa batekin batera; orain, ebakuazio eta esku hartzeko taldeen osaketa prozesuan ari dira. Ondoren, plana talde osora zabalduko da eta, azkenik, larrialdi baten aurrean lantegiak husteko simulazio bat egingo da.



ULMA Parisko Emballage Azokan.

ULMA Packaging iazko urte amaieran Villepinten (Paris) egin zen Nazioarteko Azokan izan zen; azoka horretan, 40 herrialde baino gehiagotatik etorritako 2.600 etxek parte hartu zuten eta packaging alorreko azken berrikuntzak erakutsi zituzten.

ULMAk ere bere azken berrikuntzak aurkeztu zituen bere 5 produktu-lineatan, ontziratze sistemen barnean: Vertical (ETNA 380 X), Flow Pack (PACIFIC, ATLANTA eta PV-350-LSHI), Retráctil (HORNO HRJ), Termosellado & Termoformado (TAURUS, SCORPIUS, TF-MINI y TF-OPTIMA) eta Film Extensible (GALAXY). Azokak arrakasta handia izan zuen ULMA Packaging-eko ordezkarietzat.



Alberto Iñurrategi

"Orekaren adierazle nagusia ilusioa da"

Alberto Iñurrategiri entzuteko aukera duzunean, badirudi mendirik altuenetik ari zaizula hizketan. Albertoren mezuen sakontasunak eta erabiltzen duen hizkuntzak pertsona lasai eta lagunkoi batenak dirudite. 34 urte besterik ez izan arren, munduko 14 zortzi milakoak egin dituen hamargarren pertsona da, eta alpinismoaren eredu bihurtu dela esan daiteke.

Oñati inguru honetan hasi zinen zu. Zehazki, Araotzeko harrietan eskalatu. Zergatik Araotzen? Zer gogoratzen duzu hasierako une haietaz? 80ko hamarkadaren erdialdera izan zen. Orduan, eskalatzeko leku nagusiak Atxarte, Etxauri, Egino etab. ziren. Kirol-eskaladaren oinarriak sendotzen ari ziren, Zubillagako suhiltzaileen talde bat Araotzen bideak irekitzen hasi zenean. Gu eskalatzeko hasi ginen garaian izan zen hori. Elkarrekin hazi garela esan daiteke. Gaur egun hasten

direnak baino mantsoago hasi ginen gu. Araotzen ibiltzen ginenak gutxi ginen; horregatik agian (barregarri gelditzeko beldurrez) eta oso gertu zegoenez, astean behin joaten ginen.

Kontu hauetan dakitenek esan didatenez, espedizioetan zure anaia Felixen ordez Jon Beloki eta Jon Lazkano hartu dituzu. Badirudi hauek oso ondo betetzen dutela alderdi teknikoa, baina pentsatzen dut anaiaren

hutsunea, ez soilik anaia gisa, lagun bezala ere, sumatuko duzula, harekin zenuen harreman estua kontuan hartuta. Nire bizitzan ezin du inork ordezkatu Felix. Dena harekin egin dut nire bizitzan, harengan uste osoa izan dut beti. Haren hutsunea betetzea ezinezkoa da, mendian nahiz oro har nire bizimoduan.

Zortzi milakoak egiten ari zinen neurrian zure helburua ez zela hamalauak egitea zenion, erron-

kak nahi zenituela, altuera alde batera utzita; baina hor jarraitu duzu, guztiak egin arte. Eta oraindik hor ari zara (Xo Oiu duela gutxi). Babesleen kontua al da? Helburu pertsonalen eta komertzialen arteko oreka non dago, zure iritziz? Lehenago ere esan izan dut. Zirkunstantziak eraman naute horretara, baina Himalaian hasi ginenean ez ginen helburu horrekin hasi, hori gero etorri zen. Arlo pertsonalak eta arlo komertzialak bat egin dutela esan daiteke. Baina beti asmatu izan dugu buelta ematen eta hasierako espiritu beraz egiten gauzak. Orekaren adierazle nagusia ilusioa da.

Batzuek diote mendizaletasuna Guinness errekorren dinamikan eta lehiaketa hutsean sartu dela. Zer uste duzu zuk? Lehiaketa espiritu hori onartuz gero, zergatik gelditzen dira zure ustez 14 zortzi milako ofizial horietan edo Messnerrek zerrendatu zituen nagusi horietan, eta ez dira gainerako zortzi milako guztiak kontuan hartzen, bigarren mailakoak ere sartuz, besteak beste Lhotse Shar, Yalung Kang, Annapurna Zentrala, Shisha Pangma Zentrala etab.? Ez dakit 14 zortzi milakoak igotzea helburu komertzial zergatik bihurtu den ere. Pertsonok sortzen ditugun misterio horietakoren bat izango da. Zerrenda ezagun hori gero eta jende gehiagok egiten duen neurrian, interesa galtzen joango dela uste dut, eta norbaitek zabaldu egingo du gero, komertzialki interesgarria izan dadin.

Lehen, eskalatzen gailur altuetara igotzeko helburuz ikasten zen, azken xedea lortu ahal izateko, hau da, mendia igotzeko. Gero, horma edo izotz jauziak eskalatzeko hutsak ematen zien plazergatik eskalatzen hasi ziren eskalatazailer horietako batzuk, gailurra alde batera utzita. Beren helburua zailtasun hori bera zen, eta adrenalina, ez mendi gailu-

rra. Orain kirol eskalada etorri da. Zure iritziz, kirol eskaladak ba al du zerikusirik mendizaletasunarekin? Gaur egun, eskaladak bere bizia dauka eta, askotan, parte hartzen duenak mendiarekin inolako loturarik ez izatea gerta daiteke. Hala ere, beste askotan lotura estuak daude eta kirol eskalada horma handietan egiten da, Trangon, Patagonian edota Naranjon, adibidez. Nahiko jarduera independentea izan arren, mendizaletasunarentzat beti jarduera osagarria izango da.

┌
**2000. urtea
gogorra izan da.
Gorputza atsedean
eske ari zait.**
└

Duela gutxi Felix Iñurrategi Fundazioa zabaldu da. Kontaiguzu: zein asmo eta helburu ditu? Duela ia bi urte,

Machulu herriari zuzendutako laguntzak bideratzen hasi ginen, Felixek, eta beste hainbat mendizalek, bidaietan egindako adiskideen inguruan. Gaur egun, bi proiektu ditugu martxan: mendiko eskola berri baten eraikuntza, materialarekin, ikastaroekin etab; eta ureztatze-ko sistema osa-tzeko ponpaketa planta bat, azken aldian lehortearen ondorioz urezta-tze sistema ez baita aski.

Zein proiektu dituzu epe ertainera? Azken urteak gogorrak izan dira. Batez ere 2002. urtea. Gogorra izan da, eta oso emaitza onekin amaitu da. Baina gorputza atsedean eske ari zait. Ez dut inertziak jokatu nahi. Gaur oraindik ez daukat planik hurrengo hilabeteetarako. Baina ziur dakit oso zaila izango dela iazko urtea errepikatzea.

40/45 urtera iristen zarenean eta zure egoera fisikoa beherantz hasten denean zer egingo duzun pentsatu al duzu? Ez dakit. Gaur egun ezin dut nire bizi-tza menditik urrun ikusi. Denborak esango du.

Azkenik, mendian hasten ari diren gazte guztiei zer esango zenieke? Nahiago dut ezer ez esan. Ez zait besteei aholkuak ematea batera gustatzen.



AEBetako gure filialak

Gaur egun, gure filialak garrantzi handia hartzen ari dira ULMA Taldearen bilakaeran. Gero eta gehiago izateaz gain, gero eta hobeto kokatuta daude dagozkien merkatuetan. 20 filial ditugu; ULMA Taldean ditugun 2.578 lanpostuetatik, 426 atzerrian daude, hau da, gure talde osoaren %16,5; 2002. urtean fakturaturako 350 milioi eurotatik, 109 milioi euro nazioarteko merkatuei dagozkie. 2003ko ekitaldirako, 122 milioi eurotara iritsiko garela espero da, eta horrek salmenta guztien % 34 adierazten du. Hala ere, zenbateko eta kopu-

ru horien guztien atzean, ULMA Taldearekin konpromisoa hartu duten pertsona asko daude. Dedikazio eta ahalegin handia adierazten du horrek, are gehiago beren lana gure enpresa-ingurune sozialetik hainbeste kilometrotara egiten dutela kontuan hartuta. Horregatik, Begira honetan atal berri bat zabaldu nahi izan dugu, ULMAk munduan zehar zabaldu dituen filialak ezagutarazteko. Lehenengo atal honetan, ULMA Construcción eta ULMA Packaging-en AEBetako filialak aurkeztu nahi izan dizkizuegu.




ULMA FORMWORKS, ULMA Construcción negozioak Estatu Batuetan duen filiala da. Eraikuntzaren sektore amerikarrea 34 pertsona ditu lanean. Hawthornen dago, New Jersey estatuan, New York-eko metropoli barrutiko herri txiki batean, Manhattandik 30 km ingurura. Filialak biltegia eta bulegoak ditu, gutxi gorabehera 14.000 m²-ko azalera guztira.

Azken hilabeteetako jardura nagusien artean, hauek ditugu: Philadelphiako aireportua, New York University, Macy's Foundation, Viaduct in Queens Boulevard, Harlem Center, Northeast Regional Aqueduct, Trump Building, Tiffany & CO, New York City Transit Authority, National Archives etab., nahiko proiektu handiak guztiak ere.

Gaur egun, Columbiako Unibertsitaterako proiektuak, Philadelfiako Philléis-en beisboleko estadioa, Triboro Zubia (New York), eta Stevens Teknologia Institutua (New Jersey) egiten ari dira, besteak beste.

Estatu Batuetan, ULMAk merkaturatzen dituen produktu-lineak MEGAFORM Enkofratu Bertikala –esklusiboki merkatu amerikarrerako diseinatutako sistema bat – eta BIRA Enkofratu zirkularra dira, biak neurri handikoak.

ULMA Formworks, Inc.



Jorge I. Calvo
ULMA FORMWORKS, Inc.-eko
zuzendaria

“ULMA Construcción negozioaren oinarrizko osagai izan nahi dugu”

> "ULMA Formworks-en prozesuan hasierako helburuak lortzen lagundu digutelako eskerrak eman nahi dizkiegu ULMAko langile guztiei. AEBetan lanean hasi ginenetik 4. urtea da honakoa, eta merkatuaren zati garrantzitsuetan sartzea eta prozesu horretan kalitatezko bezero leialak geureganatzea lortu dugula uste dugu. Horrek hasi eta laster ULMA Construcción negozioaren barnean oinarrizko osagai bihurtzen lagunduko digu. Berrito ere, eskerrak asko, eta ea etorkizunean ere zuen laguntza izaten dugun".

NAZIOARTEKO SALMENTEN

bilakaera

ULMA Taldea (milioi euro)

69,7	1998
65,7	1999
85,3	2000
108,0	2001
109,0	2002
122,0	2003 <small>estimazioa</small>



ULMA Packaging Systems, Inc.

ULMA Packaging Systems, ULMA Packaging negozioiak Estatu Batuetan duen filiala da. Gaur egun 10 lagun ari dira bertan lanean, eta bulegoak –duela gutxi egin dituzte–Woodstock-en, Atlantako ipar-mendebaldean (Georgiako estatua) daude. Bulegoetarako eta biltegitako nabe bat du.

ULMAK Estatu Batuetan eta Kanadan salmenta eta zerbitzuen banaketa ezarri du. Berak dituen banatzaileak eta banatzaile askeak ditu, 30 guztira, eta beste bi korporazio handi; bata nazionala (UNISOURCE), 19 bulego aktibo dituena, eta bestea tokikoa (ASSOCIATED PACKAGING), Estatu Batuetako hego-ekialdean kokatua, salmenta eta zerbitzuen 8 bulego aktibo dituena.

Gehien kotizatzen diren ekipoak eta zerbitzuak SUPER CHIK makinak dira, azal elastikoen esparruan eskarien kopurua handia baita. TERMOFORMATU linea ere indar handia ari da hartzen Estatu Batuetan eta Kanadan, eta merkatuan oso ondo kokatu dira TF Mini, TF Plus, Optima, TF 2000 eta Univers makinak ere.

Gaur egun, ULMA Ipar Amerikako janari freskoen prozesadore handienarekin, ConAgra-rekin, ari da lanean, altzairu herdoilgaitzezko NEMA4X (IP65) makinak egiteko eta Pacific eredu Estatu Batuetako janarien prozesaketako lantegietako osasun eta garbiketa eskaeretara egokitzeko. ULMA Packaging Ameriketako marka ezagunei zainketa pertsonalerako produktuak (orraziak, eskuilak) paketeetan sartzeko makinak egiten ari zaie, eta baita atmosfera aldaketako zurrin eta malguak egiteko gai diren makinak ere, sandwicheterako.



Bill Chastain - Harvey Fine
ULMA Packaging Systems, Inc.
negozioko zuzendariak

“Packaging eskaerari gogor eutsi zitzaion, herrialdearen egoera oso ona ez izan arren”

> Estatu Batuetan, Packagingeko ekipoen eskaerak eutsi egin zion iazko urtean, herrialdeak bizi duen egoera ekonomikoa oso ona ez izan arren. ULMA Packaging Systems merkatuko sektore berrietan sartzen eta merkatuan ekipo berriak txertatzen ari den bitartean, salmentek gora egitea espero dugu. Ditugun bezeroen asetasun-mailari dagokionez, arrakasta lortzen ari gara euskarri tekniko bidez eta stocketan, merkatu eta bezero berriak egiten ari garen bitartean. Gurekin gustura dauden bezeroen oinarri sendo horri esker, gure bezeroekin eragiketa komertzialak errepikatzen aukera izan dugu eta kalitate handiko ekipoetan izen ona izateaz gain, industriaren barnean laguntza eskuratu dugu. Izen onak eta gure bezeroen erreferentziak ULMA Packaging Systems-ek etorkizunean izango duen gorakada sustatuko du, zalantzarik gabe.

TMCTik ULMA Construcción negoziara

1987. urtean jarri zen martxan Tecnologías Mecánicas para la Construcción (TMC). Sonsecan (Toledo) kokatutako enpresa honek enkofratuaren esparruan lan egiten zuen, garai hartan enpresa sortu zuten bazkideek eraikuntzaren sektorea ondo ezagutzen baitzuten.

Urte horretatik gaur arte gauza asko aldatu dira eta askoz ere gehiago 1998. urtean TMCren bidez ULMA Obra Zibilaren merkatuan sartu zenetik. Lehenengo aldaketa, eta ziurrenik garrantzitsuena, TMC enpresa ULMA Construcción negoziaren barnean guztiz integratu izana da.

Famili enpresa hori errentagarritasuna eta lehiakortasuna nagusi diren enpresan barneratu zen eta alderdi hori funtsezkoa izango da gaur egun obra zibilak ULMA Construcción negoziaren duen garrantzia ulertzeko.

Duela urte batzuk gertatutako pasadizoa gogoratzea nahiko da: *"urtero Gabonetan egiten den bazkarian, berriek Gabon-kanta bat abestu behar zuten eta guztiak nahiko urduri egon ginen, sartu berriak bat edo bi baino ez baitziren. Hala ere, orain ez dago horrelako arazorik, azken urteetan benetako orfeoiak sortzen baitira..."*

Amaitzeko, Juan Lopezek, zoritxarrez jada gure artean ez dagoen TMC enpresako bultzatzaileetako batek, enpresari buruz zuen ikuspegi teknikoa eta negozio-ikuspegia gogoratu nahi dugu. HM habeak eta jaurtitzeko habeak sortu zituen. Hasiarako urte haietan TMCKo maisu eta sustatzaile izandakoari bihoakio hemendik gure omenaldi txikia egindako lan handiarengatik.

Leporaino obra zibilean...

ULMA Construcción negozioak pertsona-talde garrantzitsua eta kualifikatua du, obra zibilean sor daitekeen edozein beharri irtenbide egokiena emateko. Ingeniaritzari eta irtenbideei buruz ari gara, ULMAk, besteak beste, sektore honetan duen urte askotako eskarmentuari esker lortu dituenak. ULMAk obra zibilari egindako ekarpena azken urteetan aldaketa garrantzitsuak bizi izan dituzten pertsonen esku dago, bere garaian TMC (Tecnologías Mecánicas para la Construcción) izandakotik hasi eta ULMA Construcción negoziaren barnean sartu arteko garaia ezagutu dutenen esku.

1987. urtean, TMCren hasieran, enpresa horrek 20 pertsona inguru zituen; Bulego Tekniko gisa lan egiten zuen Madrilen eta fabrikazioa Sonsecan (Toledo) garatzen zuten. Horrela jarraitu zuten 1998. urtera arte; urte horietan TMC enpresak obra zibileko lan bereziak egiten zituen, esparru horretan enkofratuak bete zezakeen hutsunea ikusi baitzuten. Poliki-poliki hazten joan zen, eta proiektuaren berezitasunak bilatzen. Gaur egun gauzak asko aldatu dira eta, TMC enpresa erosi ondoren

(1997ko abenduaren 28an) ULMAk obra zibilean hartu duen tokia finkatu egin dela esan dezakegu. TMC enpresa ULMA Construcción negoziaren barnean sartzeko prozesua arrakastatsua izan dela ere esan dezakegu. Langileen nahia errespetatuz egin da eta merkatuak ere aldaketa oso modu positiboan hartu du.

Gaur egun ULMA Construcción negoziak Espainian dituen 4 Eskualde Zuzendaritzetan obra zibilean lan egiten duten pertsonak daude: Madrilen, Iparraldean, Bartzelonan eta Sevillan. Madrilen 19 pertsonek egiten dute lan obra zibilean eta teknikariak, delineaizaleak eta administrazioko langileak daude Proiektuen eta Eskaintzen esparruetan lan egiten. Obra zibilean proiektuen 4 maila ezarri dira. ULMAko obra zibilerrako Produkzioko Zentro Logistikoa Sonsecan dago eta 55 pertsonek lan egiten dute bertan, hamazazpik nazio eta nazioarte mailako proiektuak garatzen dituen bulego teknikoan eta hogeita hemezortzik Fabrikazio eta Logistikako departamentuan.



Ikuspegi onak obra zibileko merkatuan

"Gaur egun nazio mailako merkatuan hurrengo urteetarako ikuspegi onak daude, egingo diren inbertsioak kontuan izaten baditugu betiere. Alde batetik, AHTren lanak daude, ez bakarrik Madrildik Bartzelonara doan zatiarenak, jada amaitzen ari direnak, baizik eta Portugalera eta penintsulako iparraldera doan AHTrenak.

Plan hidrologiko nazionala martxan dago baita ere eta baita autobien eta errepideen sarea ere, oraindik amaitzeko lan handia beharko duenak.

Nazioarte mailan merkatua irekita dago beti herrialde batean edo besteetan eta goi-mailako teknologiko ekipo bereziak eskaintzen ditugu, gaur egun gehien eskatzen dena horixe baita: jaurtizteko habeak, aitzinapen-orgak eta diseinu bereziko ekipoak.

Hori guztia egiteko, ULMAn material estandarren indize handia duten zinbriak eta enkofratua egiteko eskaintza dugu. Edozein paramentu egiteko igotzeko ekipoak, horma-ereduak, presak edo edozein geometriako zubi-pilareak; horiek guztiek, gehienetan, enkofratu estandarra eta enkofratu bereziak izaten dituzte, tunel faltsuetatik hasi eta dobela-jaurtigailuetaraino".



Benjamin Navamuelek eta Juan Carlos Redondok obra zibilaren merkatuari buruzko euren iritzia eman ziguten.

ULMA Construcción negozioaren obra zibilerako Zentro Logistiko berria Ajofrinen (Toledo)

Otsailaren bukaerarako ULMA Construcción negozioa Ajofrinen (Toledo), Sonsecako instalazioetatik 3 kilometrora, eraikitzen ari den Obra Zibilerako Biltegi berria eta Handi Bereziatarako Zentro Logistikoa (obra bereziki handiak) martxan egotea espero dugu.

Joan den abuztuan lurzoruak hartzen dituen 200.000 metro karra-

tuak mugitzen hasi ziren. Gaur egun 50.000 metroko hormigoizko zola prest dago.

Gaur egun bulegorako eta biltegirako beharko diren metro karratuak zehazteko fluxua aztertzen ari gara, instalazio horiek ezartzean Manzanaresko Zentro Erregulatzaila, Sonsecako instalazioak eta Orgazko biltegia itxi egingo baitira.

ULMAREN HAMAR HANDIENAK OBRA ZIBILEAN

- > Radial 4 autobidearen goiko pasabideak Madril-Ocaña tartean. N-IV / N-II MADRIL. A E-113 tartea.
- > M-111 errepidea desbideratzea eta lurperatzea Madril/Barajas aireportuan.
- > N-260 errepidearen zabaltzea (Pirinioetako ardatza). TR: MONTAGUT-OLOT. GIRONA.
- > Lleida-Bartzelona autobioiako beheko pasabide kurbatuak. N-II Madril-Bartzelona-Frantzia errepidea. Cerverako zatia.
- > Dintelak Burgos-Leon autobian.
- > Bergarako saihebidetaren goiko pasabideak.
- > Valduno pilak eta hesia CN-634 saihebidetan. Llera-Grado zatia.
- > Marlantes ibaiko bidezubia. Kantabria-Meseta CN-611 autobia. Reinosa eta Palentziako probintziako mugarainoko tartea.
- > Igogailurako igokari zirkularra Roquetas del Mar-ko (Almeria) auditoriumean.
- > Pilak Guadalquivir ibaiaren gainean. Kordoba-Malaga. Almodóvar del Rioko zatia. CP-234 errepidea.
- > Jerez-Los Barrios autobioiako bidezubia. VI. zatia.
- > La Platako autobioiako azpiko pasabideak. Gerena-Camas zatia.
- > Pilak A-10 errepidean, Sub-Lanço Bucelasko artelanak / Arruda-bucelas / Carregado. Portugal.
- > Millares II zentral hidroelektrikoa. Valentzia.



Hobekuntza;

hobetzeko parte hartzea



Azken urteetan ULMAko negozio guztietan bultzada handia eman zaio Hobekuntzan oinarritutako kudeaketa estrategia bat garatzeari. Gaur egun, estrategia horrek negozioetan duen garapen-maila ez da beti berbera eta, horregatik, hainbat esperientzia ditugu, guztiak oso aberasgarriak; esperientzia horiek modu egokian zuzenduz gero, ULMA Taldearen eta Taldeko negozioen hobekuntza orokorra ekar dezakete. Azken batean, Hobekuntza - Erabateko Kalitatea programaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa-estrategia baten garapenean murgilduta gaude, gure Taldea Enpresa Kudeaketaren esparruan berezia eta erreferentzia izan dadin, EFQM Europako ereduak aldian-aldian ebaluatutako bikaintasun-maila egiaztatuz. Esperientzia horietako batzuk bertatik bertara ezagutzeko, Hobekuntzak eragindako prozesuetan zuzenean inplikaturako negozioetako bi pertsonen iritziak ekarri ditugu Begira aldizkarira.

Zer da Hobekuntza?

Hobekuntza kudeaketa-eredu bat da eta langile guztien parte-hartze kreatiboa sustatu eta erraztu nahi du, Taldeko bezeroen eta langileen egoeran etengabeko hobekuntza lortzeko.



Jose Mª Igartua
ULMA Forja

"Hobekuntza beharrezkoa da"

"ULMA Forja negozioan duela hainbat urte jarri zen mar-txan Hobekuntza eredu, gure kudeaketa, prozesuak eta produktua hobetzeko helburuarekin. Etengabeko hobekuntzaren ezarpenak pentsamoldea eta jokabidea aldatzea eskatzen du. Ez geunden taldean lan egiten ohituta, ez genituen pertsonen gaitasunak garatzen eta ez genuen datuekin lan egiten.

Departamentuetako oztupoak gainditu behar izan genituen, antolamendua kanpoko nahiz barneko bezeroaren beharrei erantzuteko zuzendu genuen, eta enpresako proiektuan pertsonen parte-hartzea eta integrazioa sustatu genuen. Hobekuntza eredu ezartzeko industria-esparru guztia berregituratzen zuten forjako eta mekanizatuko lan-tegiak eta fabrika txikiak definitu ziren. Gaur egun 3 ekipo daude lanean eta bilerak egiten dituzte egunero gertaerak aztertzeko, hobekuntzarako ekintzak programatzeko eta fabrikazio-programa aztertzeko astera biltzen dira eta hile-ro Kaizen bilera egiten dute langileek, buruek eta teknika-riek.

Bulegoetan 5S delakoa ezarriz, adibidez, toki gehiago lortu da, beharrezkoa ez zen materiala eta dokumentazioa deuseztatu baita, dokumentuak bilatzeko denbora murriztu da, dokumentu guztiak identifikatuta eta dagokien tokian ezarrita baitaude, soberakinen haustura desagertu da etab. Produzio-plantan eremuak mugatu dira, erremintak, tresnak etab. identifikatu eta dagokien tokian kokatu dira, hala, aldaketa-denborak hobetuz.

Ekintzak burutzeko epe luzeak behar diren arren, autokudeatutako ekipoen funtzionamendua nahiz 5S-ren ezarpenaren bidez lanpostuak hobetzea oso positiboa izan da.

Ondorio gisa, gure ustez Hobekuntza eredu, positiboa izateaz gain, beharrezkoa da gure negozioan, produktua estandarizatuta eta araututa egonik aldatu ezin denez eta kalitatea merkatuak ezartzen duenez, kostuak eta epeak hobetzeko ahalegina egin behar baitugu".




Francisco Benito
ULMA Hormigón Polímero

"Onartu egingo da eta gure eguneroko lanaren zati izango da, beste zeregin bat izango balitz bezala."

"Nire ikuspuntutik esperientzia positiboa eta aberasgarria da, bai maila pertsonalean eta bai profesionalean ere. Hobekuntza kudeaketa-ereduak problemak antzematen eta irtenbideei aurre egiten erakusten digu. Bestalde, taldean lan egitean ideia gehiago daude eta errazagoa da problema horiei irtenbidea bilatzea. Inork baino hobeto dakigu guk zein arazo ditugun eta, horregatik, problema horiek konpontzeko egokienak gu geu gara. Nire kasuan, adibidez, ahalegin fisikoarekin eta jarrera behartuekin lotutako gaietan irtenbideak bilatzen ari gara, poliki-poliki, baina horretan ari gara.

Proiektu gaztea da honakoa, urtebete ez du oraindik, eta hazten ari da. Berrikuntza guztiak bezalaxe, hasieran zaila da onartzea eta barneratzea, baina nire ustez denbora aurrera joan ahala onartu egingo da eta gure eguneroko lanaren zati izango da, beste zeregin bat izango balitz bezala. Hamar Hobetalde inguru ditugu eta talde bakoitza zortzi pertsonaz osatuta dago; talde horietan lortuko diren emaitzek etorkizuna eta jarraitu beharreko ildo zehaztuko dute.

Jendearen onspen-mailari dagokionez, beti gertatu ohi den moduan batzuek onartu dutela eta beste batzuek ez uste dut. Guztion parte-hartzea ez da maila berekoa eta horrek hainbat arrazoi dituela uste dut: pertsona batzuk hainbat Hobetaldean daude eta egin beharreko ahalegina eta eskaini beharreko denbora bikoitzak dira, lan-orduetatik kanpo egiten baita. Hobetaldeei eskaintzen dieten orduak ez dira ordaintzen eta, horrez gain, emaitzak ez dira berehalakoak izaten, denbora apur bat behar da. Pertsona batzuek ez dute hori ulertzen eta ez dituzte emaitzak balioesten. Denbora apur bat igarotzen denean arrazoi horiek guztiak ahaztu egingo direla uste dut eta jendeak Hobekuntza eredu onartuko du. Animatu egingo gara eta egunez egun hobetzea beharrezkoa dela ulertuko dugu. Proiektu baten hasiera da eta, horregatik, lan handia egin behar dugu oraindik. Proiektu honek aurrera egingo duela uste dut zinez, emaitzak emango dituela eta gure lana hobetuko dugula. Azkenik, garrantzitsuena eta beharrezkoena guztion parte-hartze zintzoa dela esan beharra dago".



Julio Saiz

ULMAko lehenengo gerentea

"Orain ikusten dudana
harro nago,
Oñatik enplegu-arazorik
ez duelako"



José Luis Madinagoitia eta Julio Saiz.

Lehenik eta behin, zer moduz zaude Julio? Zer egiten duzu egun arrunt batean? Nahiko ondo nago. Batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago. Oroimena, adibidez, ez dabil garai batean bezain ongi. Goiz jaikitzen naiz eta, eguraldi ona egiten badu, paseatzera irten naiz; gero bazkaldu egiten dut eta lo kuluxka bat egiten dut. Arratsaldean asko irakurtzen dut, nahiz eta azken aldian, ospitaletik irten nintzenetik, ez dudan irakurtzeko gogo handirik izaten. Hainbat gauza ditut irakurtzeko, baina lo besterik ez dut egiten.

Noiz hartu zenuen erretiroa? 1981eko martxoaren batean 10 hilabeteko lan-eszedentzia eskatu nuen ULMA-n, nire emaztea itsu gel-

Julio Saiz Kooperatibako lehenengo gerentea izan zen hirurogeiko hamarkadan. Guadalajaran jaio eta Kataluniara emigratu zuen eta handik Oñatira etorri zen Jose Vidalekin batera, Ignacio Egañaren bitartez. Berak, irribarre eginez, honela dio: *"jaiotzaz Gaztelakoa naiz, kataluniarra adopzioz eta euskalduna halabeharrez"*. Gaur egun 86 urte ditu eta ondo merezitako erretiroaz gozatzen du.

ditu zelako eta, bestalde, ULMA-n ikusten eta bizi nuena atsegin ez nuelako. Urte horretako abenduan behin betiko erretiroa hartu nuen.

Zergatik etorri zineten Oñatira Kataluniatik Jose Vidalekin batera 1960 inguruan? Ignacio Egaña ezagutzen genuen eta Oñatira etortzea proposatu zigun. Garai hartan Ignacio Maiztegiren lantegian alta eman zigten Jose Vidali eta bioi. Oñatira iritsi ginenean motorrentzako lohi-babesak egiten zituzten eta Jesus Lizarralde Amerikatik ekarritako aldamioren patente bat zegoen, oraindik martxan jarri ez zena. Une horretatik aurrera, lohi-babesak eta aldamiok saltzen hasi ginen, astero kobratu ahal izateko ateratzen genuen ikusteko.

"Adin txikiko ikastunekin hasi ginen, bere gurasoei lan egiteko baimena eskatuz"

ULMAren hasierako urteak zailak izango ziren eta, gainera, kooperatibako gerente izatea ere ez zen lan erraza izango. Gu kooperatiba martxan jartzera etorri ginen, ez baitzegoen ezer. 1961eko inuzente-egunean eratu genuen kooperatiba eta adin txikiko ikastu-

nekin hasi ginen, beren gurasoei lan egiteko baimena eskatuz, ez baikin legeak eskatzen zuen 15 bazkideen kopurura iristen. Euskadiko Kutxak, gainera, urtebete igaro arte dirurik emango ez zigula esan zigun. Oñatira etorri nintzenean egin nuen lehenengo gauza On Jose M^a bisita-tzea izan zen eta ondokoa esan zidan: "*Diru asko dagoen toki batera zoaz, baina zugar konfiantza izan arte ez dizute lanik emango*". Hitz horiek buruan grabatuta ditut. Handik gutxira fabrikatzen genuen ia guztia oso marjina handiarekin saltzen hasi ginen. Aldamioaren egitura egiteko 360 pezeta behar genituen eta 960 pezetan saltzen genuen. % 17ko etekin garbia ateratzen genuen. Etekin gehienak aldamioek ematen zituzten, biltzeko makinak eskuz egiten baitziren eta, hilabete batzuk igaro arte ez ziren ateratzen hasi. Makinak, garai hartan, mekanikoak ziren eta espekek eta palankak zituzten eta makineria zaharra erabiltzen genuen lan egiteko.

Nolakoa izan zen 1960. urtean izan zenuten esperientzia, giro desberdin batera iristea, jende ezezagunarekin lanean hastea? Niri Oñatiko giroa hiriburukoa baino gehiago gustatzen zitzaidan, baina ez nekien nire familiak hona etorri



Irudian, Jose Vidal eta Julio Sain 60ko urteetan.

"% 17ko etekin garbia ateratzen genuen.

Etekin gehienak aldamioek ematen zituzten"

nahiko zuen ala ez. Gogoan ditut nire emazteari eta alabari bidaltzen nizkien gutunak, oraindik Oñatin bakarrik nengonean, eta hemengo jendeak eskaintzen zidan konfiantza atsegin nuela esaten nien: dirua uzten zizuten, esne-marmitak kalean zeuden etab. Gauza horiek asko gustatzen zitzaizkidan. Baina jendearen puntualtasun falta atsegin ez nuela ere esaten nien.

Julio, hirurogeiko hamarkadan nola jartzen zen martxan salmenta-sarea? Lehenik eta behin, merkataritza-sarea martxan jartzeko merkatuari eskaintzeko zerbait izan behar genuen. Ezinezkoa zen lohibabesetatik bizitzea. Aldamio pila bat egin genituen, kamioira sartu eta Logroñora joan ginen, han kontratisten aurrean probatzeko fatxadak eraikiz. Hantxe gelditu ziren guztiak eta 15 egun igaro ondoren kobratzera joan ginen. Gero gure aldamioren ordezkariak izendatu genituen Espainia osoan. Gogoan ditut, adibidez, Martinez, Azurmendi, Pinilla, De Pedro etab. Atzerrian ere gauza bera egin genuen, baina banatzaileak aukeratu genituen. Azoketara joaten ziren eta bertan egiten genituen hitzarmenak. Portugalen Pereira familiarekin, Grezian Amerel familiarekin, Hans Knopp familiarekin Ingalaterran etab. Mexikoko okindegietarako makinekin nola hasi ginen ere gogoan dut.


Alemanian, Düsseldorf-en, parte hartu genuen lehenengo azoka ere gogoratzen dut. Arazoak izan genituen makinak erakusteko, ez baitzuten araudia betetzen. Hemen saldu egiten genituen, baina han...

Jakingo duzunez, duela urtebete pasa ULMAren sorreraren 40. urteurrena ospatu genuen. Nola ikusten duzu gaur ULMAren egoera? Orain oso ondo ikusten dut, zoragarria da. Baina ni ez nintzen Arrasateko kooperatibetan (MCC) sartzearen aldekoa. Nahiago nuen gure jaun eta jabe izatea... Hala ere, orain ikusten dudana harro nago, Oñatik enplegu-arazorik ez duelako.

Begira aldizkariak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz, ULMArekin lotutako zerbait edo norbait gogoratu nahi duzu bereziki? Nahiago dut enpresako inoren izenik ez ematea, ziur baten bat ahaztuko zaidala eta. Oñatira iritsi nintzenean Urrutia anaiek eskaini zidaten laguntza eskertu nahi nuke soilik.

Amaitzeko, mezuren bat bidali nahi diezu ULMA Taldeko langileen belaunaldi berriei? Kooperatibismoari leialtasuna eskaintzeko eta lanean zintzo jokatzeke eskatuko nieke.

Gripea iritsi da!



Guztiok ezagutzen dugun gaixotasun horrek, gripeak, indar handien hartzen duen hilabeteetan gaude. Gaixotasun birikoa da, influenza birusak eragindakoa. Urtero birusa aldatu egiten da eta, horregatik, Osasunerako Mundu Erakundeak urtero hartu behar den txertoa gomendatzen du.

Gaur egun ez dago sendagairik gripearentzat (hainbat ahalegin egin dituzten arren), eta, beraz, TXERTOIA da prebentziorako neurri bakarra. Txertoa iraila eta azaroa artean hartu behar da eta adineko pertsonak eta gaixotasun kronikoak (diabetesa, bronkitisa, kardiopatiak etab.) dituzten pertsonak hartu behar dute nagusiki.

Gripearen sintoma nagusiak lau egun inguru irauten duen sukar altua (38° baino gehiago), nekea, giharretako min orokorra eta buruko mina, eztula, sudurreko kongestioa eta mukiak dira. Ez dugu hotzeri arruntarekin nahastu behar, ez baita sukarririk izaten eta gainerako sintomak arinagoak izaten baitira. Gripearen tratamendua SINTOMATIKOA da eta atseden hartzea, likido asko edatea eta analgesiko arinen bat hartzea gomendatzen da. 3 edo 4 egunetan sukarra desagertzen ez bada edo eztulak hamar egun baino gehiago irauten badu edo arnasa hartzeko zailtasunak baldin baditugu nahiz bularrean zarata edo txistua entzuten badugu, sendagilearengana joan behar

dugu, gripeak okerrera egin baitezake eta bronkitisa edo pneumonia eragin baititzake.

Dena dela, eta medikuntzan gaixotasunak baino gehiago gaixoei esaten dutenez, gaixotzek batek adierazitako sintoma guztiak edo bakar batzuk izan ditzake eta edozein zalantzaren aurrean,

badakizue, medikuari galdetu!

**ULMA Taldeko
70 pertsonak
(Oñati ingurukoak)
hartu dute txertoa
azkeneko kanpainan.**

Sendagilearen aholkua:

Gripea: "Txertoa hartzea komeni da"

Gripearen aurrean, prebentziorako har daitekeen neurri onena eta bakarra txertoa da. Arrisku handiagoa duten pertsonen zuzenduta dago bereziki (adineko pertsonak, diabetikoak, bihotzeko arazoak dituztenak, biriketako arazoak dituztenak etab.), baina edozeinek har dezake, gaixotasun hori izateko arriskua murriztuko baitu. Noizean behin honelakoak entzuten ditugu: "nik iaz txertoa hartu nuen eta sekulako gripea harripatu nuen...". Gripearen aurkako txertoak bigarren mailako ondorioak izaten ditu batzuetan, baina alde batetik, arinak izaten dira eta, bestetik, gero eta gutxiagotan gertatzen da hori, txertoak gero eta egokiagoak direlako. Dena dela, txertoa hartu arren hotzeria edo gripe arina har ditzakegu, baina sintomak arinagoak izango dira. Alderdi ekonomikoa ere kontuan hartzeko modukoa da, gripearen ondoriozko lan-uzteek kalte ekonomikoak eragiten baitizkiete bai langileari eta baita enpresari ere.



Jon Azpiazu,
ULMA Taldeko
Laneko Osasuneko
arduraduna



40 urte elkarrekin

Atal honetan ULMAren 40 urte hauetako historiako zati batzuk bilduko ditugu. Gure historiari buruz zerbait zehatza jakin nahi baduzu edo halakorekin zer gertatu zen etab., edota, aldiz, atal honetarako zerbait iradoki nahi badiguzu, posta elektronikoko honako helbidera igorri: begira@ulma.es Edo, bestela, bidali ohar bat Begira/40 urte erreferentzia jarrita honako helbidera: ULMA Taldearen Departamentu Zentralak, Otadui Pasealekua 3, Oñati.



Lana duela 40 urte. 60ko hamarkadan ULMAn lan egiten zuten gizonek, buzoa jantzita, makinaren produkzioan lan egiten zuten. Bien bitartean, emakumeek, bata zuria jantzita, mekanografiako, kontabilitateko eta antzeko beste lan batzuk egiten zituzten. Zereginen banaketa hori argazkietan garbi ikusten da. Oñatiko Otadui 3ko lantegian lortutako argazkiak dira.


Zure lanpostutik, nola ikusten duzu ULMA Taldeko errealitatea? Zein alderdi sakondu beharko lituzke gehiago Taldeak?



Ander Yarza
ULMA Agrícola

Nire ustez ULMA Taldea ez da etekinak lortu nahi dituzten enpresa-talde bat soilik eta gizartean zeregin garrantzitsuagoa bete beharko lukeela uste dut; helburu horrek lehenasuna izan beharko luke. Gizarteko zeregin hori Oñatiko herriaren gizarte-ongizatea lortzea izango litzateke, sortu zenetik bertan kokatzen baita enpresa.

Modu horretan bi ibilbideak elkartuko lirateke. Azken urteetan zeregin hori, Oñatin egiteaz gain, eskualde osoan egiten da, inguruko herriak ere barne hartuz. Langileen kontratazioan eta bazkide berrien sarreran ikusten da hori, eta baita beste alderdi batzuetan ere, hala nola hornitzaileetan, garraiolarietan, azpikontratueta etab. Hori guztia oso garrantzitsua iruditzen zait eta ULMA Taldeak zeregin hori betetzen jarraitu behar duela uste dut, Oñatiko eta eskualde osoko erreferentzia nagusi izaten jarraitzeko.



Jose Mª Arozena
ULMA Carretillas Elevadoras

Biltegitik igarotzen den jendearen iritzia entzunda, ULMA Taldeak kanpoan duen irudia egonkorra eta indartsua dela esango nuke; hala ere, askotan ULMA Construcción negozioia eta ULMA Taldea nahastu egiten direla uste dut. Carretillas negozioan ere badirudi laneko egonkortasuna dela Taldeko alderdirik positiboena eta baloratuena, eta alderdi hori MCCn sartzean areagotu egin da. Nire ustez Taldeak garrantzi handiagoa eman beharko lioke Taldearen funtzionamenduari berari. Negozio guztien kezka eta beharrak kontuan hartuz eta balioetsiz egin behar du hori eta ez anaia gazteagoi bere legea ezarri nahi dien anaia zaharrarena eginez; horixe gertatu zen azkeneko POGUn, ULMA C y E, S.Coop. negozioari interesatzen zitzaizkion emendakinek baino ez baitziren onartu.



Aitor Garai
ULMA Construcción

Ilargiaz zer pentsatzen dudak galdetzea bezala da. ULMA Taldearen errealitatea, gure mailan, gai zehatz batzuei buruz hitz egiten dugunean baino ez dugu ikusten: nork kobratzen du hamabosgarren ordainsaria?, edo zenbateko itzulkinak izango ditugu?. Negozioaren batek lan gutxi duenean edo beste batek lan-kartera izugarria duenean ere jakiten dugu. Bestalde, ULMA Taldea MCCn sartu zenean sortu ziren zurrumurruek ere gogoratuko nituzke... Taldean kooperatiba desberdinak gaudela eta, horregatik, Taldearen barnean itzulkinak ere desberdinak direla konturatu ginen. ULMA Taldeko bazkide guztiok itzulkin berdinak izatea planteatzea ez legoke gaizki, hau da: bazkide bat, itzulkin bat. Hamabosgarren ordainsariari dagokionez, kooperatiba bakoitzean egindako lana ondo ordainduta dago. Beste garai batean, Taldeak zailtasun handiagoak zituenean, jende askok hitz egin zuen horretaz. Bazkide guztien artean berdintasuna handiagoa izango balitz Talde bat garela pentsatzea errazagoa litzateke.



Miguel Ángel Gómez
ULMA Forja

Lehenik eta behin, ULMA Forja negozioa ULMA Taldearen barnean dagoelako bizi dela esango nuke eta, beraz, guretzat Taldea bermea da, elkartasuna eskaini baitugu. Hori esan ondoren, hala ere, lan gogorra egin dugula eta inork ezer oparitu ez digula esan nahiko nuke baita ere. Beste alderdi batzuei dagokienez, Taldean gertatzen diren hobekuntzak eta lanpostuetako maila-igoerak zeharkako eskulanean izaten direla esan nahi dut, zuzeneko eskulanean gertatzen diren hobekuntzak ez baitira bertikalak, horizontalak baizik: makinak aldatzea, ikastaroak etab.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, Taldearen barnean nahiko egoera ona dugu beste batzuekin alderatuz gero. Baina gizarteari begira lan handiagoa egin beharko genuke. Etorkizunari begira, ULMA Taldea ondo ikusten dut, inbertsioak egiten ari dira eta, gainera, nahiko egoera egonkorra dugula uste dut eta porrotik gertatuko ez dela pentsatzen dut.



Luis Ruiz de Azua
ULMA Handling Systems

Pertsonalki, oro har Taldearen eta zehazki gure negozioaren proiektu berriei buruzko informazio gutxi dagoela uste dut. Epe motzean eta ertainean aldaketak aurrerikusi dira eta aldizkaria eta ahoz aho esaten dena dira gure informazio-iturriak. Bestalde, ULMA marka gero eta gehiago ikusten da kalean, babesle gisa, publizitatean etab. Hori positiboa eta guztiontzat onuragarria da. MCCn sartzeak gauza positiboak ekarriko dizkigu, baina gure ohitura batzuk baztertu beharko ditugu. Nire ustez Taldean gertatzen dena ez litzateke hainbeste polarizatu behar, negozio bakarra C y E dela ematen baitu. Bestalde, zenbat eta handiagoak izan, orduan eta zailagoa da negozioen arteko komunikazioa. Taldeko gainerako negozioak ere ez ditugu asko ezagutzen eta nolabaiteko harremana izatea egokia izango litzateke.



Esteban Igartua
ULMA Hormigón Polímero

Niretzat ULMA Taldearen errealitatea helburuak berrikusteko eta hurrengo urretarako lan-ildoak zehazteko egiten den bilera da. Beraz, gure informazioa nahiko mugatua dela esango nuke, ez baitakigu helburu horiek betetzen diren ala ez edo ULMA Taldean zer egiten ari diren. Begira aldizkaria egokia izan daiteke zeregin horretarako. Bestalde, nire ustez ULMA Taldearen helburuetako bat gure inguruan enplegua sortzea da. Ez dugu asko aurreratuko gutxi batzuk etorkizuna bermatuta izan arren, inguruko egoera txarra baldin bada. Emakumeentzat lanpostuak sortzeko beharra Taldeak duen hutsuneetako bat da. Azkenik, salmenten helburuak betetzea bezain garrantzitsua da gure lana garatzeko baldintzak hobetzea. Lanera gustura joaten ez denak helburu bakarra izaten du: irtetea.



José Mª Agiriano
ULMA Packaging

Gure lanpostutik Taldeari buruz dugun informazioa eta bertan dugun parte hartzea oso txikia dela esan nahi dut. Gauza gutxi dakigu, datu batzuk baino ez. Ezta ULMA Construcción negozioari buruz ere, gure kooperatibaren barnean egon arren. Informazioa gehiago zabaldu beharko litzateke. Badirudi negozio bakoitzak berea egiten duela eta Taldean koordinaziorik ez dagoela, nik behintzat ez dut horren berririk izan. Gizarteari begira ere Taldeak lan handiagoa egin beharko luke. Kontseilu Sozial Zentralak proposamen gehiago egin beharko lituzke. Esate baterako, alderdi horiek guztiak bultzatzeko batzorde bat sortu etab.

agenda eta iradokizunak

ERRETIROA HARTU DUTENAK:

2003-01-01etik 2003-04-30era ULMA Taldearen barnean erretiroa hartu dutenak.



VICENTE ELGUERO



JUAN LUIS IRACULIS



SEBASTIAN LETAMENDI



BIXENTE KORTABARRIA




JOXEMARI KORTABARRIA



JUAN CARLOS GALDOS

TOMAS LETAMENDI

Eskerririk asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak



Alberto Iñurrategi ULMA Taldeari eskainitako sinadura "Hire Himalaya" liburuan.



Oraingoan 9 iradokizun jaso ditugu. Jarraitu zuen iradokizunak bidaltzen:

Postaz:

ULMA Taldea
Departamentu Zentralak
Otañui Pasealekua, 3 – 13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.: BEGIRA

E-mailez:

begira@ulma.es

Oraingoan, jasotako iradokizun guztien artean Iñurrategi anaien **HIRE HIMALAYA liburua** zozketatuko dugu. Mendia maite dutenentzat eta hain zaleak ez direnentzat altxor paregabea da, dotorezia eta zorroztasun handiz argitaratutakoa.

Realeko baloia eta kamiseta ondokoei egokitu zaie:



Argider Isasti eta



Julen Barinaga